

Orain arte egindakoak:

- “Tunela: zu eta ni” (Oihana Etxegibel) (2016/17)

Formakuntza proiektu hau, Anthony Brownen ‘Tunela’ album ilustratuan oinarritutako erakusketak eta irakasleei zuzendutako formazio saio batek osatu zuen.

- “Baraja miradas” proiektua (Miriam Peña) (2017/18)

Baraja Miradas karta-sorta erabiliz, tailer bat diseinatu zen karten irudiek istorioak sortzeko eskaintzen dituzten erabilera aukera anitzak erakusteko. Eguneroko bizimoduari buruzko ñabardurak behatzea proposatzen zen, eta eguneroko bizimodua hautemateko, begiratzeko eta kontatzeko beste modu bat bilatzea.

- Haurrentzako filosofia (Miren Camisón) (2017/18)

Filosofia egitea, hau da, haur eta gazteek taldean besteekin gai ezberdinei buruz elkarrekin hausnartzea; ekintza ludikoa, sortzailea eta kitzikagarria bihurtu daiteke, Elkarritzeta Filosofikoak duen sakontasuna eta zorroztasuna mantentzen den bitartean.

Hezkuntza proiektu hau baliabide ezberdinez baliatzen zen, ekintza filosofikoa paktikara eramateko, hauen artean: jolasak, galderak, ipuinak, haur/gazteentzako elaberri filosofikoak, margolanak, irudiak, eskultura, musika, zinea, antzerkia, etab.

- “Haur eta gazte literatura eta balioen heziketa” (Mireia Delgado) (2020/21)

XXI. mendeko eskolaren erronka handietako bat aniztasunaren kudeaketa da. Ezaugarri ederra da aniztasuna, baldin eta onartu, kudeatu eta baliatzeko gai bagara; bestela, arrazakeria, inklusio eza, bullying-a eta sexismoa ager daitezke.

Ikastetxeak balioen lanketa jorratzen ari dira, eta ikastaro honek lan horretarako errefortzua izan nahi du. Haur eta gazte literatura tresna gisa erabiliz irakurzaletasuna nola bultzatu behar dugun hausnartuko dugu, iritzi kritikoa sortzen laguntzeko.